

**JOAN GURUTZEKOAREN GAU ILUNA ETA
MAITASUN GAR BIZIA**

(itzul.: Luis Baraiazarra)

GAU ILUNA

*Arimaren kantuak, ukapen espiritualaren bidez
perfekzioaren goi-mailara iristeaz gozitzen denarenak*

1. Gau ilun batez barnea
maitasunetan sutan zegoela,
oi zorion unea!
inork ez nakusela
irten naiz nire etxea bakez zela.

2. Ilunik eta segur,
mailadi gordetik mozorroturik,
zorioneko adur!
ilunik eta ernerik,
nire etxea bakean geraturik.

NOCHE OSCURA

Canciones del alma que se goza de haber llegado al alto estado de la perfección, que es la unión con Dios, por el camino de la negación espiritual. Del mismo autor.

1. En una noche oscura,
con ansias, en amores inflamada
¡oh dichosa ventura!,
salí sin ser notada
estando ya mi casa sosegada.

2. A oscuras y segura,
por la secreta escala disfrazada,
¡Oh dichosa ventura!,
a oscuras y en celada,
estando ya mi casa sosegada.

3. Gau txit dohatsu hartan,
ezkutuan inork ikusi barik,
bista jartzeke ezertan,
ez nuen beste argirik
ez gidarik, barnean zena baizik.

4. Argi honek ninderaman
eguerdi-argiak baino hobeki;
itxaroten neukan han
nik nekiena ongi,
inor ere ez zen tokian egoki.

5. Oi gau, bai gidari fin!
ez da ez goiza zu bezain atsegín!
zuk zenuen eragin
hor zedila bat egin
maitea bere maiteñoarekin.

6. Nire lore-besotan,
osorik berarentzat bainituen,
han geratu zen lotan,
nik laztandu ohi nuen,
izei-haizeak aireztatzen zuen.

7. Gazteluko haizeaz
nik haren ilea ihautzerakoan
hark bere esku narez
jo ninduen lepoan,
eta utzi zentzuen lozorroan.

3. En la noche dichosa
en secreto, que nadie me veía,
ni yo miraba cosa,
sin otra luz y guía
sino la que en el corazón ardía.

4. Aquésta me guiaba
más cierto que la luz del mediodía,
adonde me esperaba
quien yo bien me sabía,
en parte donde nadie parecía.

5. ¡Oh noche que guiaste!
¡Oh noche amable más que el alborada!
¡Oh noche que juntaste
Amado con amada,
amada en el Amado transformada!

6. En mi pecho florido
que entero para él sólo se guardaba,
allí quedó dormido,
y yo le regalaba,
y el ventalle de cedros aire daba

7. El aire de la almena,
cuando yo sus cabellos esparcía,
con su mano serena
en mi cuello hería
y todos mis sentidos suspendía.

8. Geldi nintzen eta ahantzi,
aurpegia Maiteagan jarria,
dena eten eta utzi,
neure kezka-egarria
zitori artean ahantziz ezarria.

MAITASUN GAR BIZIA

*Jainko-maitasunezko barreman barru-barrukoetan
den arimaren kantuak. Egile berarenak.*

1. Oi maite-gar bizia,
eztiki jo ohi duzuna
nire ariman sakonen den partean!
Ez baitzara aurkako ja,
nahi baduzu urra ehuna,
elkar gaitezen halako batean!

2. Oi sugar guztiz leuna!
Oi zauri atsegina!
Oi esku bigun! Oi ukitu fina,
zeru zaporeduna,
zor guztien ordaina!
Heriotza bizitzaz truke egina.

8. Quedéme y olvidéme,
el rostro recliné sobre el Amado,
cesó todo y dejéme,
dejando mi cuidado
entre las azucenas olvidado.

LLAMA DE AMOR VIVA

*Canciones del alma en la íntima comunicación,
de unión de amor de Dios. Del mismo autor.*

1. ¡Oh llama de amor viva,
que tiernamente hieres
de mi alma en el más profundo centro!
Pues ya no eres esquiva,
acaba ya, si quieres;
¡rompe la tela de este dulce encuentro!

2. ¡Oh cauterio suave!
¡Oh regalada llaga!
¡Oh mano blanda! ¡Oh toque delicado,
que a vida eterna sabe,
y toda deuda paga!
Matando. muerte en vida la has trocado.

3. Oi lanpara suzkoak,
beren argi-printzetan
sentimenaren harpeen hondoan,
lehen ilun osozkoak,
harritzeko antzeetan
bero-argia, Maitearen ondoan!

4. Zein leun eta maiteki
zuk hola iratzarririk
nire barnean, non etxea duzun,
(e)ta hats hartzean emeki,
on eta aintzaz beterik,
zein ezтики zuk maitemintzen nauzun!

3. ¡Oh lámparas de fuego,
en cuyos resplandores
las profundas cavernas del sentido,
que estaba oscuro y ciego,
con extraños primores
calor y luz dan junto a su Querido!

4. ¡Cuán manso y amoroso
recuerdas en mi seno,
donde secretamente solo moras
y en tu aspirar sabroso,
de bien y gloria lleno,
cuán delicadamente me enamoras!